IÑIGO ASTIZ

baita hondakinak ere

Baita hondakinak ere

Iñigo Astiz

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Iñigo Astiz
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2012ko apirila
Edizio hau: 2012ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Pellori

ESPERIMENTU GEOFAGOA L(AB)ORATEGIAN

Lur guztia hozkatu eta
eta ahosabaian sentitu ahalko banu,
zoriontsuagoa nintzateke une batez...

Alberto Caeiro

Lur pixka bat hartu dut etxeko baratzetik
eta harrixkak baztertuta ahoratu gero,
baina ez dut denak kentzerik lortu.
Minduta, odoletan hasi zaizkit hortzoiak.
Eta murtxikatzen jarraitu ahala
elkarrekin nahasten eta ahosabaira itsasten
sentitu ditut odola, lurra eta denborak
bere patxadaz bertan pilatutako mendeak.

Odola, lurra, mendeak. Hitz larriak hirurak,
baina baita zapore handirik gabeak ere,
eta birrintzen doaz, gainera, pixkanaka
hortz artean, eztarrian, urdailera bidean.
Paradoxikoa irudi lezake, funtsean
metatutako denborari buruz ari garelako,
baina urgentziazko bihurtu zait dena:
bizi-eramailea naiz orain.
Zuhaitz bat haz dezaket nigan,
eta metafora beharrik gabe
izan naiteke inoren gerizpe.
Konkista nazakete, alokatu, edo,
agian, baita bakean utzi ere,
garrantzi estrategikorik gabeko irla bat nola;
Izan ditzaket sustraiak, banderak,
eta biztanle gutxi gorabehera zoriontsuak.

Ardura handi baten jabe naiz.
Munduari indarrez lapurtutako
lurralde hau defendatu beharra dut
iraungo ez duela dakidan arren,
herrialde bat salbatu behar dut
haren desagerpena desio duten
beste herrialde eta mapa guztien aurka.

Baina dena ez da nekagarri. Une batez atsegina ere bada geografia izate hau: pertsona bezain leku sentitze hau.

AZALPENAK

Besteak jaiotzerako hemen geunden
baina ez genituen guk jarri errepideak,
kartzelak, katedrala eta bazirenik ere
ez genekien jendeenganako zubiak.
Hemen zeuden eta utzi egin genituen.

Gugan ideia soil zirenak iristean,
nahasian jaso zituzten horregatik gure
eta gurekin amesten zutenen aztarnak.
Guk bezala, ildo bat igarri zuten. Haren zama.

Zalaparta batean etorri ziren ordea,
eta lehen egunetik baztertu zituzten
gure zuzen eta onenetariko batzuk,
zalantzatiago ziruditen haienak ezartzeko;

guk ikusitakoa ikusi zuten baina
definizio berriak hautatu zituzten,
guk azalduta aurkitu, eta, hala ere,
azaldu genuena azaldu behar izateko.

HARRESIAK

Itzaletan zabaldu da itzala
eta laino artean galtzen doaz
mezu ederreko lainoak. Soseguz.

Zutik igartzen ditugun arren
oroitzapen ahul bat dira hiria
baldarki ixten duten harresiak.

Altxatu zituzten biztanleen aurka
eraiki zituzten haietariko batzuk,
arantzak barrurantz bilduta. Guk

ez dakit zertaz defendatu nahi dugun
elkarren besoetara honela jaurtita,
eta zer gauden hondatzen uzteko prest

baina nahikoa zait keinuaren premia
igartzeko guztiaren atzean badela
isilean irauten ahal duen zerbait,

badela infinitu zantzuren bat
gauzarik behin-behinekoenetan ere,
beti trakets inguratuko gaituena, ze

une batez beste mende bateko hitzak
eskatzen dizkit zure haragiak, eta
urrun, orbel idor artean dabilela

sakelakoak jo dio norbaiti.

ORAINDIK BAINA JADANIK

Aitonei

Ohea bere lekuan da,
eta erlojua eta toalla,
eskuila eta serbilleta,
gurpil aulkia, etxeko
eta kaleko arropak.
Dena dago bere lekuan.
Kasik oihartzunik ez du
oraindik, baina jadanik
bat gutxiago gara.

BAZKARIA

Noizbehinka erlojura doaz zure begiak
bexamela eta kroketei izkin eginda, ez ordea
pentsatzeko zeinen den bitxia denbora,
nola duen dena aldatzen eta desegiten,
nola dituen estutzen etxeak unez une, eta
nola gaituen pixkanaka uzten gero eta bakarrago,
baizik eta bizitzak ematen duen Larritasun horrekin
klasetik noiz helduko naizen kalkulatzeko.

Eztabaida beharrik gabe hartu zaitu sukaldeak
zentrotzat
eta errepikatzearen errepikatzez soilik
leuntzen diren keinu horietako batez bukatu duzu
zure bodegoi barrokoaren prestaketa,
mahaian atondutako plater eskergaren gainetik
ostera ere erlojuari begira jartzeko, patxadaz orain,
demiurgo zaharraren Lasaitasun harroz.

Ni heldu naiz orduan eta, orain gutxira arte
aitonarena zen aulkian eserita, zu zeu
zure kreazioak, zure semeak, zure denak

txiki-txiki egin eta banan-banan irentsi ditut
eguneroko bizitzaren (baina ba al da
egunerokoa ez den bizitzarik?)
gordintasun arduragabez, eta hala desagertu da
berriro ontzi garbigailuaren erosotasunera
eguerdiroko kosmos Xehe hau;
hain sortzailearen sortzailearena den
zure irribarre gero eta nekatuagoaren pean.

ESPERIMENTU BIOPOLITIKOA KALEAN

Bertikala naiz
baina nahiago nuke horizontala banintz
SILVYA PLATH

Nazkatu naiz horrenbeste bertikaltasunez.
Hainbeste mende, hainbeste hautaketa, eta zer?
Etzan naiz, eta hemen aldarrikatzen dut bizitza,
errealitatea gertatzen den bidegurutze honetan.
Badaude gehiago, baina hau da nirea, hemen eteten
eta elikatzen du mundua nire identitateak.
Hemen altxatzen naiz kapitalismo mundialaren
aurka,
eta hemen sentitzen ditut bere atzapar gozoak,
bere kapital, salgai eta jende zirkulazio kodetua.
Berdin dio. Bazterrean uzten ditut hiltzen
saltzen dizkidan bizi-erosotasun guztiak.
Jendea ez; hurbildu egiten zait. Begira dauzkat
erakusleihoak ikustera etorri diren familiak.

Ez diet ezer saldu nahi eta ez dira nitaz fio.
Udalari kexaren bat jarriko dioten irrikatan nago;
sala nazatela, eska ditzatela karbono frogak-edo.
Nik ere jakin nahi dut nire hezurretatik zenbatek
ageri duten bizitza mota arrastoren bat eta
etorriko den zer giza klaseren katebegi naizen.
Dirua non bota ezin asmatuz dabil baten bat, eta
elkartasuna azaldu gogoz beste bat. Aldarrikapen
gisakoren baten bila irakurtzen ditu nire adarrak.
Alferrik. Zenbatez den errazagoa hiltzea bizitzea
baino,
hori da mezua: eta aski zaidala bizitza bizi
nahiarentzat.
Ez da gutxieneko kontsigna izatera heltzen.
Txandaka, erraz aspertzen dira denak eta badoaz.
Sustraiak nahi nituzke eta eternitate zantzuren bat
inguratzen nauen konkrezio nahaspila honetan.
Zerua ikusten dut eraikin artetik, zeru puska bat,
hodei batzuk. Begirada aspertuz jarraitzen ditut;
mugitzen dira, desagertzen dira. Ez didate balio.
Behin esan zenidan literatura edo gorputza
besterik ez genuela merezi eta arrazoia zenuen.

BESTE GOSARI ETA BESTE GOSEAK

Agurrari agurra pilatzen zitzaion
eta ordubete eman genion elkarri
gure urte inozoetako Pamplonan:
eguzkitara utzitako gorpu jada.
Ez genion besterik eskatzen,
kirats zahar eta ezagun hura,
hildakoei darien bake hori.

Kaldereriara eraman ninduzun,
Madrilgo abenidetara ohitutako
zure ibilera bihurri eta bizia
alde zaharreko kale estuetara
berriro ere egokitu nahian,
eta Adrianaren logela, hitzik gabe,
ezkerretara hiltzen utziz.

Orduan (ez)bezala, biluzik ginen
hitz gutxi batzugatik ez balitz, dardarka
bi jaioberri; hain zen dena oraina.
Lehengoak guztiz ahaztu gabe berriz
ikasi behar izan nituen zure keinuak,
beste gose batzuekin egindako
beste gosari haiek gogoratuz,

eta Bennen aipu hura (oker) berrituz:
estatuak maite dituenak
hondakinak ere maite behar ditu.
Ez nizun ezer esan, nahiz
maitatu zintudan isilean,
Pamplona hain zahar
eta hain berri hartan,
zure ahotsari zauritutakoak
eta hildakoak zenbatuz.

HOMO SAPIENSEN ARTEKO MAITASUNAZ

Fibo-ri

Baldarra, despistatua, buru handia,
diziplinaz argala, denboraz betokerra:
pailazo galanta. Isila isiltasunez,
analfabetoa izenez eta mapez,
sustraigabea biografiaz, eta Autobuses
La Unión y Burundesa-koa nazionalitatez.

Hire hatz aske horiez harro-edo
barrabiletan hazka habil etengabe,
eta mukizapi erabiliak uzten dituk
mahaian, logelan, komunean
—zerekin ez diat jakin nahi—,
zurrunga ere egiten duk sarri
hire tximino ametsetan murgildurik.
Hasperen erretxina, asteburuko lausengari,
idiota hutsa, hain guztiz erectus,
23 urteko hire kide gehienen gisara.

Agian engainatuko dituk haiek
deskubritu berri duan despediden misterioa
nola edo hala argitu nahian habilela,
baina ez ni. Berandu duk horretarako.
Ezagutzen ditiat hire espeziekoak,
eta distantziarik batere gabe esan ahal diat,
Sapiensa Sapiensaz mintza daitekeen neurrian,
ez dudala sekula izan hi bezain anaia ederrik.

MINAK

Badira minak eta minak
publikoak eta intimoak
paparrean erakustekoak eta
ahazteraino ezkutatzekoak;
aurrez begiratu ezin direnak
inoratu ezinezkoak eta
kontuz zapaldu beharrekoak;
denborak baretzen dituenak
eta denborak sortutakoak;
pertsonak osatzen dituztenak
pertsonak erditzen dituztenak;
psikikoak eta larruzkoak
fisikoak eta ingeniari diseinuzkoak,
badira minak eta minak;
baina minetan minenak;
zugan lehertu eta
zangorik gabe uzten nautenak.

ESPERIMENTU AUTOLITIKOA KOMUNEAN

Nire burua ospatzen dut
eta nire burua kantatzen dut
WALT WHITMAN

kolpe bat
eman diot hatzaz
kolpetxo bat
maitakor kasik
ezkerreko barrabilari
baina nire aurka
matxinatu da gorputza
NIRE gorputza
NIRE aurka

behatzetatik begietara
eskutik eskura
zabaldu da mina
eta utzi egin diot
har nazan
erantzunik gabe
liluratuta
hain ezezagun zitzaizkidan
nire neurriez

AUDIOGIDA

Pentsatzen dut museoko segurtasun kamerek
erregistratuko zutela zure jainko gihartsuen
aurkako duelu pertsonala, baina gero,
lapurretarik gertatu ezean behintzat,
galdu egingo dela betirako garaituta
Zeusen bularraldetik begirada lurrera
apartatzeko egin duzun keinu dotorea,

eta penaz hartu dudala aitortu behar,
nahiz erakutsi didan oraindik badela
tarte bat gizatasunerako, ahanzturarena;
inguruak eta belarrira hain gozoki
mintzo zaigun audiogidaren ahotsak
bestelakorik adierazi arren, hori badela
askatasunerako nahikoa espazio.

Baina ez da hori garrantzitsuena,
horri buruzko ezer esan ez dizudalako,
bi urratsetan lau mende aurreratzearen
plazer ezinbestez zaintzapeko eta bihurria
ez zapuztearren, pozik baikabiltza,
eta hori da egia, Babiloniako piezetatik
Egiptokoetara saltoka eta tarteka
eraikina eraberritu zuen arkitektoari adi
II. Mundu Gerran bonbek zimenduetan
eragindako kalteei buruz hizketan ari dela,

sineste bidean kasik denborarena
sarrera truke desegin daitekeen
beste gezur horietako bat baino ez dela,
harik eta exit seinaleak eta gero souvenir dendak
hiri erdiz ezezagunera bota gaituen arte,
elkarrekin eta gazte bai, baina —jadanik
audiogidaren oharrik gabe— mundu
berriegi honetan lehen baino galduago.

ETB1

Izan zitekeen beste edozein
baina itsas lehoiak izan dira,
haiek eta ez beste ezein etzanda
itsasertzeko labarrean eguzkitara
edo olatu artean igerian bestela
kamera ultrageldoaren begiradapean.

Harri eta lagunen ziurtasuna utzi
eta itsasorantz doaz taldeko ausartenak
han baitira arrantza gunerik onenak;
han, olatuez bestaldeko ur haietan,
beti han, eta inoiz ez hemen —han non
tout n’est qu’ordre et beauté—.
Ur azalera egiten duten jauzi bakoitzean
beren biboteko ile bakoitza
atzean utzi eta uretara doa berriz ura
bere ur xehetasun konkretu guztiekin.

Baina ahotsak (hain National Geographic)
marrazoak aipatu ditu une horretan
eta une horretan bertan hitzarekin batera
sortu da marrazo handi eta bakar bat,
pantailako olatu artean igeri hura ere
bere hemendik bere harako bidean
hura ere eder eta motel, itsas lehoien pare
baina jadanik beste musika batez.

Eta ihesi doaz itsas lehoiak kostata
baina honezkero iragana zaien
uneari betirako heldu nahian, eta
ehizan, aldiz, azkarxeago halabeharrez,
marrazoa hurrengo unearen gosez.

Klik txiki bat eta kezkarik gabe
libratu naiz unearen arduraz
sofan etzanda, katea aldatu —ni ere
hemendik harako bidaian—
eta nire burua beste inoren
beste uneren batera abandonatuta.

Ez da gehiago ageri labarrik,
nahiz ni gabe ere, pentsatzen dut,

iraungo duen horrek guztiak.
Kamera geldoaren errukirik gabe
ihesean jarraituko dute oraindik
itsas lehoiek olatu artean,
bizkorrago eta zakarrago, heriotza
marrazoaren hortzak ukitu ahala ulertuz,
eta ahots eta azalpen beharrik gabe.

READY MADE ETA BESTE

READY MADE

«Mordechai Vanunuk oso-
rik bete du ezarri zioten kartzela
zigorra eta orain ezin diote beste
zigor bat ezarri. Ezin zaio beste
zigor bat ezarri dagoeneko bere
zigorra osorik bete duen pertso-
nari».

* 2004ko apirilaren 21ean
Berria egunkarian
Yoav Loeff-i elkarrizketa

BESTE

«Hautsi da anphora» zenioen
hautsi nahian kanta,
hautsi nahian harria,
hautsi tiriki tauki hautsi, baina gaur
hautsi dena anafora da, aspaldi
hautsi zen pertso
-nak hautsita.

MAITASUN SORPRESA DEMOGRAFIKOA

2 Muga, baina Zelai bakarra,
4 Argal, baina Beteta bakarra,
7 Zapata, baina Zango bakarra,
24 Abadia, baina Meza bakarra,
29 Gaztelu, baina Noble bakarra,
54 Eraso, baina Orden bakarra,
197.932 biztanle, baina Zu bakarra.

* Iruñeko telefono gidaren
irakurketa apetatsua

AURKIKUNTZA

konpas ezagunak dira nire hatzak
baina galtzen naizelako hala ere
maite dut zure gorputz analogikoa
igande arratsaldeetan emana
ordenagailuan edozeri arduragabe begira
infinitutik ezin urrunago eta beraz
baita inoiz baino ederrago ere

zarata kolore eta mugimendu
hainbeste zilipurdiz nazkatuta
pasio nagi eta muxu nekatuon
zetaz oheratzen dugu elkar
eta aspertuta jotzen dugu larrua
etsipen nolabait domestikatuaz
gure gorputzen uneko egiaz
egia handiagoa sumatuz eta ezkutatuz:
aspertuago geundeke hori gabe

baina denak guztiz errendituta
dirudienean zerbait diozu nitaz
eta egunerokoen artean ahaztutzat
nuen arren deskubritzen dut nire burua
zure ahotsean aukera guztien aurka
irribarrez harrigarriki eder

ESPERIMENTU PRESENTZIALA ESKAILERETAN

Ez dakit nor den, baina norbaitek
denbora bat kalkulatu dit hemen.
Eskaileretako argiari sakatu eta
bertan gelditu naiz ikustera
noiz suposatzen nauten kanpoan,
noiz behar nukeen beste inon, agian
beste inorekin, edo behintzat ez hemen:
bakarrik, geldi, isilik. Ezertan ez.
Bataz besteko presentzia bat dut
munduaren leku zehatz honetan,
eta nire ausazko existentziaren
denbora agortzea erabaki dut gaur,
beste inori eszedenterik utzi gabe.
Norentzat dira nire segundoak
ni ez nagoenean? Ordezkatzen al naute?

Bigarrenez sakatu diot argiari, geldi,
ezin asmatuz zer beste unerengatik
sakrifikatu behar nukeen une hau,
zer beste lekutan pentsatu nauten,
eta zer beste bizitza amestu didaten.

DENBORA NEURTZEKO

Erlojua eta oinetakoak kendu
eta herriko etxeko erosotasun
urbanoez biluzturik, hasieran
min pixka batez oinazpietan,
egin lorategi erdirainoko bidea
eta eseri hurritzaren gerizpean.
Pasatu eskua belar fresko artean
harri egoki samar bat aurkitzea
beste desirarik gabe eta
hura baliatuta gozatu gero
mekanikaren edertasun xeheaz:
apuntatu, jo, hautatu, jan,
eta etxean sentitu aspaldiko
oso aspaldiko zerbaiti erantzunez.
Bete ahoa iazko hurrekin —goxo
eta oretsu— eta mehatxu kutsurik gabe
sumatu zuhaitza zure bizitza
denbora unitatetzat hartzen.

GARAIPENNA

Eskuri, Mireni, Landerri, Txomini

Itxura erridikulu samarra dut orain —ezin dut
ukatu—,
nirea ez den etxeko egongelako sofan eserita,
bakarrik,
eta eskuetan Sandro Pennaren liburua irekita
gaztaroari buruzko poema bat irakurtzen,
lehenik italieraz, jatorrizkoan, erdia ulertuz
—Forse la giovinezza è solo questo
perenne amare i sensi e non pentirsi—
eta gero itzulpenean, beste erdia (edo bera)
ulertuz —Quizá la juventud sea sólo este
perenne amar los sentidos y no arrepentirse—,
zuek, bitartean, zuen logeletan zuen maitetxoekin
kariziaka eta irriñoka zaudetela, nire Pennaz
ezer ere jakin gabe, eta hala ere haren hitzak
nik baino era inmediato eta intimoagoan ulertzen.
Baina iritsiko da egun bat, eta ez dakit

izango diren alienigenak beren uhin hilgarriekin,
estatu kolpe tradizionalago eta dorpeago bat,
edo Plath, Li Bai eta Parra ezagutzen ez dituzten
guztiak
zonbi bihurtuko dituen birus arraro eta
eli(o)tistaren bat, baina helduko da egun bat zeinean
garrantzitsua izango den Pennaren poemak
ezagutzea,
Larkinen ironia ulertzea, eta XV. mendeko
konparazio basikoekin hunkitzea,
egun bat zeinean nire lagun poetekin batera
(poetikoki, baina errealki) metraileta hartu
eta ozen salatuko zaituztedan zuen logeletan.
Horregatik nago nirea ez den etxeko egongelan
Sandro Pennaren liburua irekita, zuek
zuen logeletatik eta maitetxoen besarkadetatik
askatuko zain, lehenik italieraz, jatorrizkoan,
erdia ulertuz —Altro respira qui, dolce animale
anchégli silenzioso. Ma un tumulto
de vita in me ripete antica vita.
Più vivo di così non sarò mai—,
eta gero, itzulpenean, beste erdia (edo bera)
ulertuz —Otro respira aquí, dulce animal
también él silencioso. Pero un tumulto

de vida en mí repite antigua vida.
Más vivo que así no estaré jamás—,
isilka, garaipenerako prestatzen ari naiz.

DURANGO
(LARKIN ERARA)

Egun eguzkitsuegia, aukeran, azokarako,
baina badira autoak bazterretan eta barruan
hasi dira hauta-probak: liburuak eta diskoak,
ordenan aurkeztutako garun erupzioak mahaietan,
eta hots ozenak ate inguruko manifestazioetatik.
Badu bere publikoa haietariko bakoitzak.
Kritikariak gune nagusian daude kritikatuekin,
paper trukean tarteka. Megafoniako abisuak

nabarmen egin du talka esku batean billeteak
eta bestean poltsak dituen gizonaren agur-oihuekin.
Egutegiak, pinak, kamisetak eta beherapenak,
komunak ere bai garajearena dirudien zuloan.
Prentsarentzako txokoan eskaileretan jendea, etsita,
baten eta besteren stand artean lekurik ez
dagoelako
umeen jolas nahia eta zalaparta gogoa asetzeko.
Ezagun batzuk, bestela, beste ezagun batzuen
gosez.

Eta hasi dira borrokak (barka, aurkezpenak),
berandu:
zirkulu kontzentriko sorta osatu da haien inguruan;
literaturan interesatutakoak erdigunean, idazleak
gero,
eta literaturan (gutxiago?) interesatutakoak,
periferian.
Gizon parea Ternua prakatan gorputza tinkoturik
elkarri hitza lapurtzen eta deman gailendu nahian.
Ez da salmenta ekintza, erlatibo segida amaiezina
baizik;
azokako «izarretako» bati publikoa uxatuta, nahikoa.

Badira bestelako ikuskizunak ere: antzokia
eta literatur sorkuntzari eskainitako gunea,
manifestuen haserrea eta sinadura eskaeren
edukazioa.
Denaren gainean flotatzen pantaila erraldoia,
erosleak
edo irakurleak erosten edo irakurtzen ageri dituela.
Nobela sendoak eta egunerokotik hurbilagoak:
errezetak, bidaia gidak, autolaguntza aholkuak...
Galtzen doazen gaitasunak gordetzen dituzte
guztiek.

Bitartean, kanpoan amaitua da protestaldia
gazteenek beren ahotsak erakusten jarraitu arren.
Pankartak beren baitarantz biraka, itxi eta ireki,
zer mundutara zabaldu dituzten ardura gabe.
Berdin zaie irakurleak irabazi edo galdu dituzten.
Atzealdean, badoaz batzuen eta besteen furgonetak
dekoratu aldakor bat bailiran, haietariko bakoitza
bere komisaria propio eta nahi baino urrunagora
bidean.

Hustu da parkina ere eta billeteen gizona badoa.
Orain kamioi batzuetan sartu dituzte liburu eta
mahaiak,
eta bueltan doaz bisitariak beren helbide
pribatuetara,
kale bakarreko harrizko herrietara, hutsik iluntzean,
eta salmenta era bihurriagoetara (liburu-dendetara,
eta etxe atariraino heltzen diren pakete urrietara);
udazken oste honetara, azoka astearte honetara
ekarri dituen erritualaren azal horitua atzean utzita.

Hiztegi zaharkituekin joan dira euskara-hezleak,
poema bildumekin poeta gutxi batzuk eta

Nafarroako historiak tentaturik emazte sentikorrak
Takolo-ahotseko seme-alabekin norgehiagokan.
Bueltan doaz berriz denak beren bizitza lokaletara:
sortetxe izenetara, eta sukaldean zintzilikatutako
lantokiko egutegietara, enpresen urteko balantze
eta galeretara ERE, umeen ballet entseguetara.

Sortu zen gune ber horretan utzi dute azoka hiltzen
bere kasa, hezurreria osoa agerian eta ahul.
Iraun dezala horrela ezkutuan, kemenaren pare,
salmenta zenbaki handien eta kritika positiboen
pean;
denborak keinu zailduagoak irensten dituela jakinik
ere,
izan dadila jendeak urtero berpizten duen zerbait,
denek partekatutako zerbait, antzinatik euskal
literatura
existitu dadin berritzen den zerbait. Bego hor
betiko.

RENO, VITA MINIMA

eguna
liburu artean igaro
kalera irten eta
eguzkiaren azken printzen
laztana gozatuz
pijaman egin
etxeko ataritik
postontzirainoko
bost metroak
eskutitzik
ez dagoela ikusi
eta une batez
zoriontsu izan
egiteko xalo horiei
beste garai bateko
baretasuna igarrita

SOUVENIR

«Opened» piztu berria, eguzkia
teatro nazionala emeki argituz,
Kafka kamiseta eskegi berriak,
ibaiertzetik leunki tranbia,

Gitarra, jazza, estatuak, zubia,
eliza garai eta handia plazan,
eskeletoa, erlojua, hori guztia,
Karluv atzean, Revolucni han,

postalak, lehen turista taldeak,
eta, geroxeago, langileak;
hiria jendez janzten, oharkabe,

eta zu eta biok taberna hartan,
elkarrekiko mapa beharrik gabe,
heriotzaz hizketan. Gure Praga.

ERRAUTSAK

Heriotzaz ari zara bazkalondoan, ama,
Zure heriotzaz eta Nireaz ere bai, ze
zure errautsak non zabaldu adierazi nahian
zabiltzala
normaltasun beldurgarriz mintzo zara
nire existentzia aurreko heriotza modu hartaz.

Harrituta entzuten zaitut gainontzeko aukerak isildu
eta Urbasa aukeratzen. Arrazoiak datoz gero;
esaten didazunez, Niri esaten didazunez,
han izan zineten beste edonon baino zoriontsuago
eta han egon zineten Denak. «Ez daukat beste
lekurik
nire errautsak zabaltzeko». Bare ari zara. Bareegi.

Zure egunik onenez ezer ez dakidala ohartu naiz
kolpez, Ni gabekoak direla Zure egunik beteenak
eta zuekin batera han egoteaz hasi naiz
fantaseatzen,
gogoan darabilzun nire jaiotza aurreko egun hori
zuekin batera pasatzeaz; hizketan eta laino artean,

kontatzen duzunez, elkar doi-doi ikustera helduz
eta Gure kontuak ez beste iparrik gabe.

Ohartuko al zinateke nire presentziaz, ama?
Ezagutuko al nindukezu semetzat? Eutsiko al
zenioke
Ni izateko aukerari, baita Ni ezagutu ondoren ere?
Bat gehiago nintzateke, agian, izebaren eta zure
artean,
bat gehiago Urbasan, Gu eta Besteentzat
kozinatzen,
amonak zure bitartez pasatako patatak zuritu ahala,
zergatia ongi ulertzera iritsi gabe, baina, Ni ere
Zure zerbait handi horren parte sentituz.

AURIKULARRAK

Norbaitek mahai gainean ahaztuta
egoskor ari dira aurikularrak kantuan
jadanik ez dagoen norbaitentzat, eta

zentzuzko ezer konprenitu ez arren,
otoitz moduko batean dirudi ahotsak
bere latin propio eta ulertezinarekin

eskari zaharren bat errepikatzen.
Badu detaile bakoitzak edertasun bat
lekukorik behar ez duena. Bada

denboraz gaindiko intimitate bat,
nire agerpenaz hondatu dudana. Ez luzez.
Atea itxi eta berez utzi dut mundu puska hau

berriz ere bere burua ospatzen.

HITZ BAT IZOZKAILUAN

hitz bat
isiltasun guztien aurka
zarata honen guztiaren erdian
apaindurarik gabe
bakarrik
izozkailuan itsatsita
zeinen ezgauza
absurdua da aipatzea ere
zeinen ezgauza
hitz bakar bat
baina diozu etorri
eta banoa

DENA

Niri dagokidanez,
gera gintezkeen medusatan
GOTTFRIED BENN

Dena nahiko nahasia izan zen,
sotila eta potentziala hasieran,
ikaragarria eta erreala gero.
Pixka bat denetarik jazo zen,
denak hartu zuen denaren forma
eta denetarik zabaldu zen denean.
Bizitzarekin gertatu bezala,
antzera hedatu zen heriotza ere,
gureaz beste zirrararik gabe, baina
tartean konkrezio deigarriak utziz.

Gehiegikeriak ziren, baliteke, eta
aski zitekeen dena bi medusa haien
lehen laztanean amaitu izan balitz.
Akaso errepikapenak, bertsioak,
besterik ez gara izan gerora.

Haragi zauritua baino ez, eta
maiz, ezta haragia ere, baina
gu izan gara, dena den. Gu
hemen eta orain, behin eta berriz.
Ezer ez kasik, eta hala ere zerbait.

TOMATEEZ AITAREKIN

Baratzeaz galdetu dizut, aita, baina
zurekin egindako manifestazioetara
egin dit gogoak alde bat-batean;
Amnistiaren alde, Independentziaren alde,
Euskararen alde, Sozialismoaren alde;
inoiz gutxi gure alde, zure eta nire alde.
Arrotzak izan gara denbora batez,
pankarta beraren atzean bi ezezagun.

Etxean etxekotzat genuen elkar
baina ez ginen etxe berekoak.
Txundituta entzuten zintudan
lanak bueltan jaurtitzen zintuenean
zure hitano, borda izendegi, abeltzain kontu
eta sortetxearekiko loturei adi, baina
nola eta zer erantzun asmatu ezinik,
zurekiko giltza eta hizkuntzarik gabe.

Zer da hau, galdetzen nizun
eta zuk hurritza esaten zenidan,
edo galdetzen nizun zer da susera,
edo zer da txulubita, eta zuk
erantzun egiten zenidan pentsatuz
agian ergela nintzela, eta esanez
urbanita bat nirudiela, edo
señorita bat bestela, *señoriten* pare
baztertzen nituelako sastraketako arantzak,
hatz puntekin, minik ez hartzeko.

Aita, ez dugu asmatu elkar apartatu
eta elkar errekonozitzen, eta
mindu egin zaitut horregatik
zuri ere ulergaitzak eta baztertzeko
hain zailak zaizkizun hitzekin ahoa betez.
Defraudatu egin zaitut eta saldu,
eta dagoeneko baita hil ere. Baina
ezinbestean hori izan da gure abiapuntua.

Jada ez gara pankarta beraren atzean aritzen,
eta ez gara joaten mendira elkarrekin.
Etxean ere gutxiagotan egiten dugu topo;
helduak gara honezkero. Biok. Aurrenekoz.

Bakoitza bere min eta bere kezkekin,
gu, bi gizon lanpetu, bi gizon nekatu,
bi gizon *señorita;* azken batean, bi gizon.

Hala ere, maiz ez dakigu elkarri zer ezkutatu,
eta isilik gelditzen gara oharkabean.
Idazle potoloez galdetzen didazu akaso,
musika talderen batez, nik oso txarrak direla esan
eta zuk irribarre egiteko (baditugu gure jolasak).
Baratzea aipatzen dizut nik gero, eguraldia,
ardiak, gaur bezala ia edozer, eta

harrituta entzuten zaitut beste behin
ez, ordea, berriro ere arrotz zaitudalako,
baizik eta, aurtengo lehen tomateez ari zarela,
nire burua ikusten dudalako zugan,
lehen aldiz, gorri eta nabarmen,
zure pare. Zure arerio. Zure seme.

HERIOTZA EDO ELIKADURA HAURREI EDO LEHOIKUMEEI ESPLIKATUA

Umea.

Umea eta leihoa.

Leihoa eta lehoia.

Lehoia eta umea.

Lehoia.

Eta umea?

INFINITUA DASTATZEKO

İtsasotik lasterka atera
eta azalak eguzkitara utzi
biluzik eta zimurtuta
haragiaren zama gozatu
eta erabat jantzi gabe etxeratu

agurtu bizilagunak bizkor
eta erabat biluztu gabe
zure aluan nahasian sumatu
milimetro bakoitzaren garrantzia
eta inmentsitate haren zaporea

absolutua eta ile bakan batzuk

ESPERIMENTU LUMINIKOA AUTOAN

Ez noa azkarregi
eta ezagutzen dut bidea:
argiak itzali ditut.

Hauts artetik gora
doa gaua, ilargia,
isiltasuna.

Urrunean herria (nirea)
argi-xuxurla batean,
eta bertan, errepideko marrak

zuri, ozenago,
bide ertzean bazterrak,
erabat beltz,

gainontzeko
ia dena bezala,
bereizezin baina

mehatxuka,
eta arriskuaren erdian (edo)
autoan ni;

izu-antza
baina barregarri,
azkenean,

landa lanetik
oinarrizko bibliografiara
itzuli beharragatik:

Baudelaire, C.,
Les Fleurs du mal
«Correspondances»

OROITZAPENA (ZUZENDUA)

DYAkoek etorri behar izan zuten
herriko errepide bazterreko
telefono kableetan
elektrokutatutako hura askatzera.
Ez zen bertakoa, baina
itsatsirik gelditu zen
bertakoren baten hitzetara,
ulertu ez arren, setati,
gure hondatutako hotsok
osa zitzakeen soldatapeko esperantzaz.
Gomazko eskularruak
erabili behar izan zituzten
bere gorpua libratzeko,
eta gomazko hitzak ere
familiarentzat, badaezpada,
baina bestela arazorik gabe
askatu zuten telefono kableetan
eskegitako ~~bandera~~ gizon hura.

ESKALA

Lurraldetasunarena atera didazu baina
orain ez da geografia bat behar dudana,
gorputz bat baizik, nireaz neurtzeko,
finean, giza eskalan bizi baita gizakia.

Ciorani irakurri diot estua dela muga
konbikzioen eta apeten artean eta
nire ohean, eder, biluz eta konkretu,
giza irudiaren argazkiz osatutako
The Body liburuari begira zaudela,
argi dut ideiek xehetasun bilakatzeko duten
era bihurria dela gustatzen zaidana:

hemen gertatzen zarelako maite zaitut.

HIL BERRI DEN AITAREN ARRASTOA BESARKATZEKO

ilaran paratu jantokiko lau aulkiak
egiaztatu seriean egin zituztela eta
beraz denak berdin-berdinak direla
tolestu belaunak eta eseri haietako batean
ipurdia ipurdiari dagokion gunean pausatuz
errepikatu prozesua beste hiru aulkiekin
eta haietako bat laxoago dagoela sumatuta
inguruko inork ez entzuteko moduan esan
«honetan eseri zen gure aita»

EGARRIA

Ez da askorik gelditzen
baina nahikoa, hala ere,
ospatu nahi dena ospatzeko:

zure keinuen errealitate sendo
baina nahitaez iragankorra,
eta oroimenaren premia.

Heriotzaren larria, bestela,
bere arrasto xumeenekin.
Uraren soiltasuna, adibidez,

mesanotxeko edalontzian,
jadanik ez den egarri bat,
eta zure izarek diotena:

hondakin erromatarren pare,
amildegiak eta muinoak apenas
izandako osotasun batez mintzo diren:

izan ginen, orain ez gara.

TEOLOGIA

Jadanik izan den eta gerora izango den
bi gertakariren arteko denbora hil hau
agortzen du erabat nire gorputzak;
iraganeko katastrofe batez edo etorkizuneko
zerbait handi batez ari dira denak
—denboraren pertzepzio teologikoak
deitzen ditu Rancierrek bere testuetan—,
eta baliteke zerbait handia gertatzea
baina nekez sinets dezaket zerbait hori
niri gertatuko zaidanik, edo katastrofe hark
nirekin zer ikusirik duenik, neurrian,
ni ere horretaz mintzo naizen arren
—hara, zure betile bat aurkitu dut masailean—.

Nire aldarrikatzen ditut hemengo uneok,
babesgabe eta bazterreko; komando baten,
ingeniari nuklear baten eta etxekoandre baten
pareko
egiten nauen orainaldi zalantzakor hau:
ez ekintzena, baizik eta oihartzunena.

ESPERIMENTU METAFISIKOA LOGELAN

Biluztu eta nire burua
besteren fantasietara eman,
ezker eskuaz nire presentzia
nabarmenegia ia ezabatu,
hatz artean hazia sumatu
—likatsu, irristakor—, eta
paper faltan, nire ohea
nitaz gehiago zikin ez dadin,
irenstea erabaki, bare
lo hartu gero eta amestu
erabat mundu izateko
ni baino ez nagoela orain
nire baitatik soberan.

POETIKA SINDIKAL GARAIKIDEA

Sekula guztiz heltzerako badoan
presentzia lauso bat baino ez da
iraultzaren ideia nahasia hemen,

baina hala ere igar daiteke aletzen
luxu ezinbestez proletarioen eta
erantzun beharraren presaren artean.

Badu bere tenpoa keinu bakoitzak,
eta badu bere norabidea erritualak;
motel eta haztamuka bada ere,

badoaz konbinatzen klase gorrotoa
eta hizkuntzaren ñabardurekiko
kezka delikatu eta kasik preziosista,

azkenean, beteko ez dela jakinagatik
guztiek ezinbestekotzat duten
erantzun garden batera heltzeko:

bederatzi ez, bi bai, abstentzio bat.

TORTURA

Abisua pasa zizutela eta gurera etorri zinen
gau beterako babes eske, ezkutuan, bai, baina baita
etxekotzat hartzen dutela dakienaren patxadaz ere.

Nik ez nuen gezurrik gure anaia gorputz gazteei
giharrak mugara daramatzan errealitate hori
isiltzeko,
eta ezin izan nizun hitzik egin esan ez daitekeenaz.

Esker onez hartu nituen horregatik etxe alokatu
berriaz
esan zenituen txikikeria guztiak, mehatxupean
bazen ere,
bizitzak gurean jarraitzen zuela esan nahi zutelako.

Alfonbraren itsusiak eta dekorazioaren xaloak
bazuten bere garrantzia. Oraindik beste zen bestea
eta inoiz hilko ginela jakin arren bizirik ginen

eta ezina da biziontzat heriotza modurik pentsatzea.

Hala ere, hor ziren negar eta oinazeen lotsak,
aspaldi gure baitan diseinatu eta bertan bilduta,
akaso, gau horretan askatuko zituzten zain.

Hor zen arte zaharra, perfekzionatua eta xumea:
birika preteritoak eta itolarriaren sofistikazioa.
Jazo gabeko zerbaiten oihartzuna zen soilik

baina, hala ere, ozenegi mintzo zen
egongelako bakean zure mugimenduen egia:
Bada beste gorputz bat gure gorputzetan.

Gurea hura ere, baina mekanikoa eta zabarra,
dena tendoi, dena hezur, dena nerbio mutur,
azkenean inoren eskutan apurtu ez, eta sofan

esnatu zen zurea bezain zehatz eta gehiegizkoa.

OBJEKTUAK

Hau guztia bukatzen den egunean
objektuak izango dira gutaz eta
gure ordez mintzatuko direnak.
Orain inguruan dudanaren arabera
ezagutu eta epaituko naute gerokoek.
Aulki bat izango da nire ahotsa,
bukatu gabeko zopa bat nire biografia.
Egindakoak ez dio batere axolako
eta ezta egin asmo dudanak ere;
orain egiten ari naizen hau baino ez.

Ondorioztatuko dute (hozkailuagatik)
nahiko ongi elikatuta nengoela,
mintzo nintzela hizkuntza batean, bitan,
eta kezkatu-edo egin ninduela munduak
(egunkari, aldizkari eta telebistagatik),
beste norbaitekin bizi nintzela etxean
(galtzerdiak biltzeko bi moduengatik),
eta ariketa gutxiegi eginagatik eta 1943ko
bonba baten ondorioz 2011n hildako
bi haurren albistea eta joan-etorriko

kultur ziztrinkeriak gorabehera,
baldintzak banituela zoriontsu izateko.

Izango naiz haien konklusio nahiaren neurrikoa
erreplika eta zehaztapen aukerarik gabe:
«hau izan zen bere garaia, hau bere lekua».

ESPERIMENTU GEO-DOMESTIKOA ILUNPETAN

Atea ireki eta badator lehen kolpea.
Gehiago egongo dira gero.
Ezinezkoa zait nire egungo etxean
umetako gure sukaldera heltzea, edo
gure deitzen genuen logelan babestea.
Ilunpetan eta begiak itxita nabil
memoriaz, eta miresmenez ere bai
ziurtasun handirik gabe bada ere,
keinuek oraindik gordetzen dutelako
inoiz propio egindako leku haien neurria,
zalantzatia izan arren, giharrek badutelako
iraganaren zentzu presente bat,
praktikatzeko mingarri zaidana.
Planoen gainean doaz planoak eta
urritu egin dira ateak, ugaldu hormak.
Bizitza bat izan nuen gela horietan,
eta fantasma eskukada bat dut orain.
Larru bakarreko etxe sail umila.
Zenbat espaziok habitatzen naute?

Soinean daramatzat zeharkatutako herriak
baina ez da zama, harridura baizik
Iruñean Elizondo saiatzera naramana.
Beste kolpe bat hormaren aurka.

EUSKAL HERRIA (GINSBERG ERARA)

Euskal Herria, dena eman behar nizun
baina pixka bat baino ez dizut kendu.
Euskal Herria, 1.180 euroko soldata
eta beherantz, 2011ko abenduaren 28a.
Euskal Herria, neure burua ere ezin dut eraman
zer egingo dut zurekin?
Hasteko aukeratu egin behar zenuke: edo
zirkunstantzia edo helburua edo aitzakia.
Sukarra daukat, eta ez nago asmakizunetarako.
Utz nazazu bakean sikiera une batez.
Ez dut poemarik idatziko burua argi izan arte.
Euskal Herria, ez etorri zure historiarekin,
geurea da errua; zer pasa zaigu?
Geuk izan behar genuke zerutiarrak,
eta ez beste munduren batek.
Egongo da hau konpontzeko moduren bat
iraganera edo etorkizunera jo gabe, ezta?
Sarrionandia Kariben bizi dela diote eta
ez omen da sekula itzuliko; etsigarria da.

Euskal Herria, 88 amona baino ez kobazuloetatik
(Oteizaren kalkuluak) zure ixte bidean diren
Volkswagen eta Daewoo fabriketaraino;
eta orain zer?, nora zoaz?
Noiz izango zara dituzun iraultzaile guztiek
merezi duten bezain eder eta librea?
Edo akaso nahiago duzu pankarta eta
turismo bulegoetako existentzia kolaterala?
Batzuetan pentsatzen dut euskal sukaldaritzaren
marketin kanpaina bat besterik ez zarela.
Oinazeak eta nekeak gorabehera, Euskal Herria,
hau da itsasoan hatzak busti, supermerkatuan
ilara egiteko barianteetako batean espezializatu
eta
haragiari heltzen ikasteko duzun aukera bakarra:
benetan existitzen saiatu behar zenuke,
azken bururaino existitzen.
Pozarren ordainduko nizuke hilobi bat, Euskal
Herria,
zein izenekin ehortziko zaituzten esango bazenit;
baina euria ari du eta ez dakizu zein aldetatik.
Zurekin ezin da eguraldiaz ere aritu.
Euskal Herria, zure berehalako jaiotza horrek
ez ahal nau igogailuan harrapatuko!

Zer ordutan bizi gara, Euskal Herria?;
nazio bat garela diozu, baina bakarrik nago.
Oraindik ez didazu kontatu
zer egin diozun nire herriari.

Euskal Herria, bazatozela aldarrika ari dira,
baina nondik etorriko zara?, zein geltokitan
itxarongo zaitut?, nola ezagutuko dugu elkar?
Euskal Herria, zeuk badakizu nor zaren?,
zenbat jenderen ardura duzun?
Badakizu haietariko zenbatek gozatu
nahi lituzketen euren zauriak nireekin?
Ez gehiegi nahasi, aski dut portzentaje txiki bat,
zehatza ez izanik ere; hurbilpen soil bat
eta banoa harekin ohera; hori ere ez?
Euskal Herria, noiz erregulatuko duzu zure militar
eta polizia guztien boten modeloa?,
noiz zapalduko zaitugu denok berdin?
Bakeaz eta baketzearen presaz ari zaizkizu denak
barkatu beharraz eta barkatu ezin denaz,
baina beti hala ezagutu zaitut nik.
Euskal Herria, talka egiten dute zure abizenekin
Kubaraino heltzen diren Bizkaibusek
eta laguntza humanitarioek:

Astiz kapitaina, Pinochet Ugarte,
Katalina Erauso, Juan Zumarraga...
Adostu dezagun iragana nahi baduzu;
ikustekoa nintzen umetan.
Hamaika urte nituenean tirokatutakoa
guardia zibil baten ordez politikari bat izana
errore estrategikoa zela esanarazi zenidan.
Hamalaurekin jangelaz arduratzen zirenei
presoen aldeko gose greban ginela
esaten genien protesta ostiraletan,
egutegi kristauaren araberako eskola publikoan
ostiraletan arraina baino jan ezin genuelako eta
guri ez zitzaigulako arrain nazkagarria gustatzen.
Hamabostekin nire burua gogoratzen dut, plastika gelan
Van Goghen logela margotzen ari nintzela,
senide bat kartzelan preso zuen klasekideari
amnistia zer den azaltzen.
Hemeretzirekin Bilbon lehenengoz ETAri ezetza
publikoki ematen, 2004ko martxoaren 11ko
Madrilgo atentatuengatik; eta bai, Euskal Herria,
ordurako banekien ez zela ETA izan.
Zain neuzkan hildakoak jaiotzerako.

Madrilera joan baino lehen lagunak esandakoa ere bai:
«zuk bakarrik aurki diezaiokezu
zentzu apur bat honi guztiari».
Bera ere ez da itzuli eta esango nuke jadanik
nirekin baino ez dela aritzen euskaraz.
Euskal Herria, ohartu naiz ni ere banaizela Euskal Herria.
Berriro ari naiz nire buruarekin hizketan.
Ziur aski nire buruari barkatzen ez dizkiodanak
dira zuri barkatzen ez dizkizudanak.

Barroteen zein aldetan zaude, Euskal Herria?
Elektrodoen zein ertz ezagutzen duzu?
Zein muturretik eusten diozu pistolaren
eta garezurraren arteko oreka ezinezkoari?
Euskal Herria, tigrea eta bildotsa sortu zituena
izate bera ote den galdetzen dio
bere buruari Blakek poema batean:
What inmortal hand or eye
could frame thy fearful simmetry?
Blakek ez zintuen ezagutzen, eta nik ere ez.
Euskal Herria, ez naiz zutaz fio.
Izan ere, nor zara ni ez zarenean?

George Bushen administrazioak egindako jazarpenez
aritu zitzaidan iruindar bat aurreko batean
—arte galeria ederra du, ikusi behar zenuke—
eta New Yorkeko artista ezkertiarrek aurrera
egiteko izan dituzten oztopoak kontatu zizkidan.
Egunkaria eta *Egin*en itxierak aipatu nizkion nik,
eta berak baietz erantzun zidan, argi zegoela
baietz,
baina zeri buruz ari nintzen arrastorik izan gabe.
Euskal Herria, zer gezur errespetatu behar nizuke
nik?,
nork pasa dit zure lekukoa?, nire gezurra al zara?
Ezin dizkizut tortura deklarazioak irakurri,
horra egia bat; eta gehiago dauzkat.
Euskal Herria, entzun behar zenituzke
Amerikari buruz Ginsbergek idatzitakoak,
nola luzatzen eta luzatzen dituen lerroak
arnasaldiak ematen dion erritmora.
Ni ere saiatzen naiz behin eta berriro,
baina suspirio bat trabatzen zait.
Euskal Herria, ai, ene Eskual Herri goxua,
zure presidente izan nahi nuke,
herrialde baten ordez oihartzun bat
gobernatuko nukeela jakinik ere.

Euskal Herria, zu zein urratsetan ari
euskaraz?, zuk ni ulertu?;
Nik zu ez gehiegi, baina pixkana-pixkana;
euskara oso zaila: bagina, zezan, geniezaion..
nik hori ez entzun inon, zuk bai?, zuk ulertu?
Euskal Herria, nik lan hamar ordu eta gero
euskaltegi,
baina ni despedido orain, ni saiatzen baina
ikastea zaila, euskara oso zaila, oso-oso,
baina poliki-poliki.
Euskal Herria, guraso langabe euskaldunberri
euskarazko produktu kontsumitzaile
laguntza emaile bertsolari utopiazale
gudaroste bat daukazu zure aginduetara,
baina ez dakizu harekin zer egin.
Euskal Herria, Arnaldo Otegik kanpoan behar luke,
zuk ulertu?, edo paso total?
Euskal Herria, ez zen ongi egon politika egiteagatik
nire laguna ezkutatzera behartzea,
eta etxera itzuli zenean Poliziak
atea kolpez botako zuen beldurrez
amarekin lo egitera bultzatzea.
Euskal Herria, goapo asko atera zenuen nire osaba

traizionatu zintuela esateko egindako kartelean,
oso dotore, bai, baina zer egin zizun zehazki?
Beharbada nik ere traizionatu egin zaitut
gosarirako esne marka bat erosi ordez
oharkabean besteren bat aukeratzean?
Euskal Herria, zer iritzi duzu biolentziaren
banalitateaz?
Ez dizut zerrendarik egingo, baina hartu ordu erdi
bat
googlen zure buruari erreparatzeko.
Euskal Herria, zenbatgarren errepikapenean
erdituko zara?
Euskal Herria, zenbatgarren errepikapenean
erdituko zara?
Audeni irakurri diot poesiak egin behar lukeen
zerbait:
bere existentzia soilagatik, eta gertatze
hutsagatik,
horregatik bakarrik ospatu behar luke dena.
«Basque is cool» izeneko kanpaina bat abiatu dute
Etxepare Institutukoek, zergatik nik
ezin zaitut ospatu bestelako bake batez?
Ez dakit zehazki zer esan nahiko duen, baina
batzuetan zure existentzia besteko indarrez

ospatzen dut zure existentzia eza;
zuri ere berdina gertatzen al zaizu nirekin?
Euskal Herria, bukatu egin behar genuke
behingoagatik: bukatu hasieratik.
Geroak esan beza erri bat izan zan
edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan.
Euskal Herria, arnasaldi hau ez da dena,
baina bai nire pixka guztia.